

Barren

ASTEKARIA

EL GOIBARREKO A S T E K A R I A · 2002ko martxoaren 22a/X. urtea/398. zkia

Pedro Agirregomezkortak Korta saria jaso du:

***“Esanahi sentimental haundixa
daka niretzat sari honek”***



Estazio taberna jatetxea



karta
eguneko menua
jaunartzeak
bataioak

San Inazio, 9
Tel. 943 743 414

ASTEKO NOTIZIA

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

10:00 elalrik-**12:30**era

15:00 etatik-**20:30**era



Ego Gain, 4 behea
(San Andres pascalakutik)

Tel. 943 203 455 · 20600 EIBAR



Safiya


Adin berbera daukagu, biok gara emakume eta ama. Hortik aurrera gure bizimoduak ez dute parekotasunik, agerikorik behintzat. Zergatik? Ba bera mundu borobil honetan ni baino apur bat hegoalderago jaio zelako, besterik gabe. Aste honetan ahoz aho ibili da bere izena: Safiya Hussain nigeriarra harrika hiltzera kondenatua dago, senarrik gabe haurdun gelditu zelako, eta epaiak aurrera egingo duen ala ez erabakitzeak zen duela egun batzuk. Hala ere, erabakia astelehenera arte atzeratu dute, nazioartean sortu den arbuioa medio. “Beste

batzuek krimen handiagoak egin dituzte, baina ez dute zigorrik izan, toki garrantzitsutan babesa eta laguntza dutelako. Ni, berriz, herri behartsu bateko emakume behartsua naiz”, esan du Safiyak asteen Islamaren Legearen epaitegian. Egia biribila. Baina hala ere, berak “zortea” izan du. Bere kasuak tokia izan du munduko komunikabideetan, eta internetez zein postaz, Safiyaren aldeko milaka eta milaka gutun iritsi zaizkie Nigeriako agintariei. Ez dakigu zerbaitetarako balioko duten. Etzidamu jakingo da.

Film batez ari garela dirudi, baina tamalez, ez da hala. Europara itzuliz, gertuago ere izan da pelikularik asteen, eta ez dakigu barregura ala negargura eragiten duen. Horretan ere emakumea protagonista. Protagonista tristea. Miss lehiaketen inguruko polemikaren zaratak iritsi zaizkigu Europako lehendakaritza txit ohoregarrian den Espainiatik. Okela freskoaren merkatuan salerosketak eta diru-beltza nagusi. Bitartean eguzkitsu iritsi zaigu udaberria. Hori izan beharko litzateke asteko notizia! Horrela gazteen arazoak konponduko direla?

“Internetez zein postaz, Safiyaren aldeko milaka gutun iritsi zaizkie Nigeriako agintariei”

Montse Arregi



Euskararen auziaz

Hizkera batek sendo iraun eta aurrera egingo badu, bi baldintza behar ditu, nahitaez: bata, herritarren hizkera horrekiko lotura edo atxikimendua; eta bestea, lege aldetik babesa eta lehenasuna. Bi horietako batek huts egingo badu, ez da aurrerabiderik izango.

Gure euskarak, eta berarekin euskaldunak, arerio asko izan ditu aspalditik eta oraintxe ere makinatxo bat traba badu Euskal Herriko bazter askotan. Horren lekuko zenbait alderdi politikoren erasoak; lege aldetik jarritako errekurto edo elegiteak, debekuak eta abar luze bat. Hau alde batetik; eta bestetik, euskaldun askok dugun kontzientzia eskasa eta arduragabekeria. Jo dezagun, esaterako, norbait euskalduna izanda euskaldunekin erdaraz hitz egiteko ohitura hori. Horrela jokatzek euskaraz ikasi nahi duenarentzat ikasbide txarra emateaz gain, euskara bera ere galbidera darama zuzenezuzenean, bizi izateko behar duen lehenasuna ukatu eta baztertzen delako. Hitz egiten den hizkera bizirik dago, baina egiten ez dena galdua da!

Euskaldunon esku dago herri hau euskaldun egin edo erdaldun bihurtzea. Ez dago erdibiderik! Euskaldunak euskaldunari euskaraz egin eta erdaldunari euskara ikasten lagunduta bakarrik egingo dugu Euskararen Herria.

Juan M. Elustondo

“Hitz egiten den euskara bizirik dago, baina egiten ez dena galdua da”

Atal hauek ez dira BARRRENen editoriak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

asteko notiziak

Kexak	5
motZ MotZ	8
gehigarria	11
kiROLak	16
aGenda	20

BARRENek ez du bere goni hartzen BRTZA eta ESKUTITZAK erabiltzen adierazibideen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatu egin behar dira argitaratu ondoren. Ez aldatu edo bota. Argitaratzean izen-abizenak, NAN eta telefono zifra.

Datorren astean, Aste Santua dela-eta, ez dugu BARRENik kaleratuko. Beraz, hurrengo alea apirilaren 5ean izango duzue eskuartean. Bitartean, ondo pasa Aste Santuko oporrak!

Urruzunoren begi ezkutua

Zapatuko prozesioa



Zapatuko arratsaldeko bostak baino lehen hasten da prozesioa. Trenetik jaitsi ondoren, ondo-pasaren fededunak, saltokira abiatzen dira. Bertan, ardoa edo behar diren bestelako edariak eskuratzen dituzte, jaunaren graziaz. Edozein bazterretan kokatu, likido alkoholdunak nahastu eta erruz edaten dituzte neska eta mutikoek, debekuaren guruzbidea ezarri dieten arren. Orain gehientzat pekataria direnek, barrua sano berotuta, tabernaz tabernako peregrinazioari ekingo diote, "extasia", (ez jangoikoarekin bat egiteagatik prezisamente), lortu arte.

Jon Eugi

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa
enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12

Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.c

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eñe Aizpuru KAZETARIAK Irati Agirresazaldeggi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia

MARKETATZAILEA Iker Diego A ADMINISTRAIOA Amaia Rodriguez GARENTZIA Jon Peli Urtegun

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Puente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansaategi, Ekume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Maitse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T..

AZALEKO ESABERRA ZAHARRA Gotzon Garateren Iñaki IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN

ELGOIBARKO IZARRA
EUSKAL LEKUA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.










KEXAK

◆ Herritar batek, **ambulatorio aurrean zebrabiderik ez dagoela**-eta, zerbait egin behar dela esateko deitu digu: “Ambulatorio aurrean, rotonda egin zutenetik, errepidea zeharkatzeko oso arrisku handia dago. Jendea ambulatorioko atetik irten bezain pronto, karretera zeharkatzen hasten da eta parean ez dago zebrabiderik. Oinezkoak zebrabidetik pasatu behar dira edo bestela, beste erremedioren bat ipini, zebrabideak urruti daude-eta”, esan digu neska honek.



TXALOAK

◆ Elgoibarren bisitan izan ditugun Litherland ikastetxeko irakasle eta ikasleak elgoibartarrak eta batez ere, **Ikastolako ikasle eta irakasleek** txalotu nahi dituzte eskaini dieten harrerarengatik: “Elgoibartarrei eta Ikastolako ikasle eta irakasle guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, herria ezagutzeko eman diguten aukerarengatik. Bestalde, Elgoibarren eta inguruko herrietan igarotako momentuak oso atseginak izan direla esan nahi dugu. Eskerrik asko”.



Barreak, Birrak eta Barreak



Kondiaren 50. urteurrena ospatzeko 320 pertsona bildu ziren Bilboko Euskalduna Jauregian pasa den martxoaren 16an. Arratsaldeko 17:00etan Kondiatik atera ziren 4 autobusetan joan ziren Bilbora. Kondiako langileak, senideak, atzerrian makinak saltzen dituzten ordezkariak (Japon, Iparramerika, Hong-Kong, Brasil, Frantzia, Alemania, Suitza...etab-etik etorritakoak) eta jubilatuta dauden langileak eta hauen bikoteak bildu ziren Euskalduna Jauregian. Jose Mari Riañok, Kondiako gerenteak, 19:30ean eskaini zuen hitzaldi batekin eman zitzaizen hasiera ospakizunei. Kondiari buruzko gaur egungo enpresa datuak izan zituen hizpide Riañok. Ondoren, Joseba Konde, enpresako zuzendariak, Kondiaren 50 urteko historiaren eta enpresaren izaeraren inguruko aipamena egin zuen, eta azkenik, Gillermo Garate, Elgoibarko Alkateak, hitz batzuk esan zituen. Gaueko 21:00etan eman zitzaion hasiera afariari. Afari goxoa dastatzeko aukera izan zutela esan digute eta zuzenean jo zuen musika talde baten doinuez alaitua, gainera. Gonbidatu bakoitzak, 50. urteurrena dela-eta Kondiak atera dituen Udal Musika Bandaren CD-a, hiztegia, eta Arturo Andrade-ren eskultura jaso zuen oroigarri gisa. Gaueko 1:00ean itzuli ziren Elgoibarrera.

Kond bete

JOSE LUIS TADEO.

KONDIKO LANGILE BETERANOENA. 57 URTE.

**"30 URTE BAINO GEHIAGOAN
LANEAN ARI DEN JENDEA
DAGO KONDIAN"**

◆ **Zenbat urte daramatzazu**

Kondian lanean? 1961. urtean hasi nintzen lanean Kondian. Beraz, 40 urte.

◆ **Hasi zinenean horrenbeste urte egingo zenituela pentsatu al zenuen?**

Hasieran ez duzu holakorik pentsatzen, baina urteak pasa egiten dira eta gustura nagoenez, 40 egin ditut. Lehen errazagoa eta ohikoagoa zen lanez aldatzea, enpresa batetik bestera langile mugimendu handiagoa zegoen, alegia, baina Kondian gustura nengoenez, bertan jarraitu nuen. Lan egin dudana enpresa bakarra izan da, Geminisen egin nituen hilabete batzuk kenduta.

◆ **Lantokiko beteranoena zara, ezta?** Bai, baina hilabete gutxi batzutako alde bakarrik ateratzen diet beste langile batzuri. 30 urtetik gora Kondian lanean egin dituzten langile asko daude.

◆ **Enpresak ere asko aldatuko zen urte hauetan guztietan, ezta?** Bai horixe. Ni sartu nintzenez, 61. urtean, Azkena dantzalekua eta gasolindegia bitartean zegoen lokal txiki batean egin genuen lan 20 langile inguruk. Handik Markina errepidera (Santa Klara) pasa ginen eta 1972. urtean etorri ginen San Antolinera. Orain 100 langile inguruk eginen dugu lan. Lan egiteko modua ere asko aldatu da, noski.

◆ **Zer moduz Bilboko Euskalduna jauregian egin zenuten afarian?** Oso gustura. Langileak, langileon emazte eta senarrak eta jadanik jubilatuta dauden Kondiako langileak bildu ginen, beste batzuren artean, eta giro jatorrean afaldu genuen.



50 URTEKO HISTORIA

1952. urtean sortu zuen Kondia Urbano Conde fundatzaileak. Urbanok, eskulana prozesu produktiboaren parte garrantzitsua zen enpresa bat sortu zuen. Horretarako, erreminten fabrikazioan tradizio luzea izan duen herri bat zeukan, aspalditik Euskal Herria bere burdinoletan eskuz egiten zituen metalurgi produktuen kalitate eta kopuruagatik nabarmendu baita. Gaitasun horrek, ordea, mekanizazioa salto egiteko prest zeuden gizon-emakume ausartak behar zituen. Izan ere, makinak egiteko makinak behar ziren, klase guztietako produktuak egiteko makinak. Hala, perkutoreekin hasi eta burdinoletako martineteekin segitu zuen aurrerabide horrek, behin betiko bultzada izan zuen Kondiak egin zituen fresatzeko lehen makina haiei esker. Salto numerikodun sistemak jartzerakoan inor baino bizkorrago ibili zen Kondia. Estatu guztian teknologia hori zuen lehen fresatzeko makina jarri zuen martxan 1975. urtean. Urbano eta bera bezalako beste bide-erakusle batzuri esker, Estatuko makina erremintako kapitala dugu gaur egun Elgoibar.



320 lagun bildu ziren Bilboko Euskalduna Jauregian

Kondiak 50 urte ete ditu



Mahain, kondiako ordezkariekin batera, Eneko Astigarraga eta Jose Luis Tadeo egon ziren



Makinak saltzen dituzten ordezkari atzerriarrak ere etorri ziren ekitaldira



50. urteurrena gogoratzeko hitzaldia eta irudiak eman zituzten



Kondiako ordezkariak eta Guillermo Garate Alkatea mahai bueltan

ENEKO ASTIGARRAGA.

KONDIAN SARTU DEN AZKENEKO LANGILEA. 22 URTE.

**"IKASTEKO AUKERA EMAN
DIDATE KONDIAN"**



◆ **Zenbat denbora daramazu**

Kondian? Iazko uztailaren erdialdean sartu nintzen, duela 9 hilabete eskaz, beraz.

◆ **Zein da zure lana?** Fresadora handi batekin zentro mekanizatuak egiten ditut.

◆ **Aurrez beste enpresaren baten ibili al zara lanean?** Bai, mutrikuarra naiz eta bertako enpresa batean urtebete inguru egin nuen lan. Kontratua

hobetzea ere eskaini zidaten, baina gehi-ago ikasteko gogoia nuen eta Kondiara aldatu nintzen, hemen aukera hori ematen zidaten eta. FP egina nuen, baina mekanizatu alor-
an gehiago ikastea falta zitzaidan.

◆ **Gustura al zaude?** Bai, enpresa on batera etorri naizela uste dut, langiro ona dago eta gainera, gauza gehiago ikasteko aukera ematen dit.

◆ **Gustatuko al litzaizuke enpresa berean 30 edo 40 urtez lan egitea?** Gustora egonez gero bai, zergatik ez?.

◆ **Zer moduz joan dira 50. urtemugako ospakizunak?** Oso ondo. Bilbon afari eder bat egin gendun eta primeran.

Bi argazki kamera eta 600 euro inguru lapurtu dituzte BARRENetik pasa den asteburuan

Gaztetxean ere dirua lapurtu dute asteburu berean

Pasa den asteburuan lapurrak sartu ziren BARREnera. Domekan, ekitaldi baterako erretratuak atera behar zirela-eta, erredakziora argazki kamera bila etorri eta, sorpresarekin topo egin genuen: guztia hankaz gora zegoen. Lapurrak erreka aldeko leihoak sartu eta bi argazki kamera eta dirua eraman zituzten, gainontzeko trastei, ordenadorei, grabagailuei... kasurik egin gabe. Guztira, 300.000 pta-ko balioa, gutxi gora behera.

Ez da estreinako aldia

Ez da hau BARRENen lapurretara sartzen diren lehen aldia. Duela urte batzuk ere lapurreta bat egon zen eta orduan ere, oraingoan bezala, argazki kamera eraman zuten. Duela pare bat urte, sarrerako atea



Erreka aldeko leihoa apurtuta sartu ziren lapurrak

indarkeriaz irekitzen ahalegindu ziren baino ez zuten lortu. Hori dela eta, metalezko pertsiana jarri genuen. Oraingoan ordea, erreka aldeko leihoak berriak ipini zituztenetik, errejarik ez zegoenez, erraz lortu dute sartzea.

Gaztetxean ere bai

BARRENen lapurtzeaz gain, Gaztetxean ere izan dituzte gautxoriak asteburuan. Ostiraletik larunbatera bitarteko gauean, hurrengo egunerako lagata zeuden kanbioak eraman zituzten. Esan digutenez, ez dakite ziur zenbat diru zegoen baina, hurrengo eguna zapatua izanda, astegunetan baino diru gehiago zegoen kajan.

Urasandiko tontodromoan eta Pedro Muguruzako plazan eta eskoletan, aparkalekuak egitea aztertzen ari da Udala

Proiektuak aurrera eginez gero, 136 aparkaleku egingo dituzte

Injelan enpresak aparkalekuak egiteko proposamena egin dio Udalari. Guztira 4 leku posible aztertu dituzte eta aurrera eginez gero, 136 aparkaleku gehiago egongo lirateke herrian. Honakoak dira aparkalekuak gehitzeko leku posibleak: Pedro Muguruzako eskoletan eta plazan; eta Urasandi auzoko tontodromoan.

136 aparkaleku guztira

Pedro Muguruzako eskoletan, 50 aparkaleku egiteko proiektua dago. Bi



Urasandiko tontodromoan 36 aparkaleku egin daitezke

proposamenetan banatu dute azterketa: lehenengoa, eskolako patioari dagokio eta 24 aparkaleku egingo lirateke. Bigarrenean, pareta eta eskaillerak kenduz gero, beste 26 aparkaleku egitea posible izango da.

Hirugarren proposamena, Pedro Muguruza plazan kokatzen da. Gaur egun, oinezkoentzat bada ere, 40 aparkaleku egin daitezkeela ikusi da. Azkenik, Urasandiko tontodromoan, pasealekua kendu gabe, beste 36 plaza aurreikusten dira.

Lurrazpiko 66 nitxo daude banatzeko oraindik Olasoko hilerrian

Nitxoen eskaera egin duten herritarren artean subasta eta ondorengo banaketa egin ostean, lurrazpiko 66 nitxo daude oraindik Olasoko hilerrian. Eskaerak egin nahi izanez gero, Udaleko Ongizate Sailera jo dezakezuela jakinarazi nahi du Udalak. Nitxo bakoitzak 1.298,18 euro balio ditu (215.000 pta). Norbaitek lau nitxoko zutabea nahi badu, 5.168,70 eurotan eskuratu ahal izango du (860.000 pta.). Eskaeren arabera erabakiko da nitxoen banaketa.



Udalak 107.659 euro gastatuko ditu piszinen obretako bigarren fasean

Pasa den udan igerilekuak ireki baziren ere, oraindik lekua erabat akondizionatu gabe dago. Bigarren fase honetako obretan 107.659 euro (ia 18 milioi pta) gastatuko ditu Udalak. Dirua igerilekuen argiztapenean, lurraren pabimentazioan eta inguruan zuhaitzak landatzeko erabiliko da. Hirugarren fase baterako, aldagelak geratuko lirakeke. Aldagelak egiteak 50 milioi pesetako kostua dauka eta oraingoz, ezingo dio Udalak 3. faseko lanei aurre egin.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen
dugu
eta asteburuetan 9:00etan

HERRI-GAİN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4

Pedro Agirregomezkorta, AGME enpresako Gerentea

"Gaur egun etxian daukaten balixo haundixenetako gauzia da Korta Sarixa"

Pedro Agirregomezkorta enpresari elgoibartarrari ibilbide profesional onari eskainitako Korta Saria eman diote. AGME enpresako zuzendaria da Pedro. 1948an, Pedoren aitak, Jose Agirregomezkortak eta Sabin Mendikutek sortu zuten enpresa, Etxebarri baserriko beheko pisuan, "kortaren ondoan", Pedrok dioen bezala. 23 urterekin hasi zen, 1967an, beraien lanean. Orain, 35 urteren ondoren, bi langile izatetik ia 100 izatera heldu dira eta makina erreminta munduan, errematxadorak egiten liderrak dira, gainera. Sari honen berri jakiteko eta Pedoren ibilbide profesionala ezagutzeko hitz egin dugu berarekin.



■ Jose Mari Korta Sarien bigarren edizioko saria irabazi duzu. Sari garrantzitsua, ezta?

Gure exitua errekonozitu dabe. 1995etik egindako lana saritu dabe. Duela 6 urte %8 edo %10 esportatzen genduan eta oin %67 esportau dou. Merkatura adaptatu gera, inpakto asko eginez, eta hori ezagutzera ematia inportantia da.

■ Oraingo honetan, ordea, alderdi sentimentaletik, esanahi handiagoa al dauka?

Danok dakigu, Jose Mari Korta zein izan zan eta nola hil zan. Korta Fundaziuak ibilbide enpresarial onagaitxik eindako errekonozimenduaz aparte, neretzat esanahi sentimental haundixa daka. Joxe Mari oso pertsona jatorra zan, beti herrixai lagutzeko prest zauana, pelota asuntuan, deportian... Beti dialoguan aldekoa zan.

■ Horrelako sariak, apalean laga eta ahaztu egiten al dira?

Ez, hau espeziala da neretzat. Enpresari emandakuak bertan ipinitxa ditzut, enpresan, baina hau etxera eruan dot eta gauza espezial moduan daukat. Gaur egun etxian daukaten balixoi haundixenetako gauzia da Korta Sarixa.

■ Zergatik uste duzu ematen dizutela Korta Saria?

Banakixan gu sarixa irabazteko enpresa posiblien artian geundela. 1995etik gaur egunera bitxarteko ibilbidian, gure objektibuak bete ditzugu, bai produktuan, bai merkatuan eta baitxa erreminten gestuan ere, bezeruari kalitatia eskaintzerakoan. Hala ere, Josu Jon Imaz Industria Sailburuak deitxu zianian, "zeatxik neri?" galdetu nion, ezin nabari sinistu. Pare bat ordu tardau nabari erreakzionatzen.

■ Zer sentitu zenuen saria zuretzat zela esan zizutenean?

Esan zienian, Korta Fundaziuan errekonozimendua zala, oso nerbioso jarri nitzan. Ni ez naiz nerbiosua, asanblea inportantietan egotia ere tokau jata eta momentu hau ailegau artian ez nabari pentsatzen nerbioso jarriko nintzanik. Baina nere perfila esan zabarian eta Jose Marin erretratua ikusi nabarian, hankak dardarka euki nitxuan eta momentu bat bihar izan nabari neure onera etorri artian. "Kunpliu juat", "Ein dot ein biharrekua" pentsau nabari.

■ Familiarteko enpresa izateak, arrakasta izateko lagundu al dizu?

Ni hasi nintzarian, tekniko eta mekaniko moduan, ez zauan jarrik, domeketan ere lan eitzen genduan. Enpresia familixakua danian, asko sentitxu bihar dau enpresariuak. Hemen ez dakazu puenterik, jarrik. Gaur egunian, ez dakitxu ze futuro dauken familixa arteko enpresek, dedikazio asko eskatzen dau. Ni aspaldikua naiz eta lehen ez jakun ardura lan eitxia, lan eitxeko bizi ginan, baina gaur egunian hori ezta hola.

■ Nori eskaini nahi diozu saria?

Lehendabizi, AGMEko pertsonalari. Ekipo oso ona dakatela esan bihar dot. Sekula ez nao konforme, hori ere egixa da, gaurkuak ez dau bixar balio-eta, baino oso langile onak ditzut. Eurena da exitua. Gero, nere familixari, beti egon dia preokupata enpresari larreki eskaintzen niola-eta. Neri 1980xan, hemengo direkziua hartu nabarian, esku guztixa laga zien bai nere aitzak ea baitxa bere soziuak ere. Neretzat Sabin bigarren aitxa izan zan. Nere bidia inbertitzekua izan da eta bide hortatik lortu da hau dana.

"Enpresa familiartekoa denean, asko sentitu behar da. Ez dago jarrik, ez zubirik"

Kili BARREN

Emakumezkoen II. Frontenis Maratoia jokatuko da datorren asteburuan

Goizeko 9etatik gaueko 9ak arte jokatuko dira partidua

Gipuzkoa, Bizkaia, Logroño, Zaragoza eta Bartzelonako jokalariek izango dira asteburu honetan Mendaroko. Guztira 12 bikotek hartuko dute parte. Antolatzaile lanetan, Maite Mariskurrena aritu da, eta berak esan digunez, ez da erraza honelako txapelketa bat antolatzeko: “Arazorik larriena ekonomikoa da. Ate asko jo behar dira, baina ilusioz hartu dut, eta ondo atera da”. Estatu mailako jokalaririk onenak bilduko dira Goñati frontoian. Goizeko 9etatik iluntzeko 9ak arte jokatuko dute, eta igandean finalak izango dira. Maite Mariskurrenaren hitzetan, “beti kataluniarrek irabazten digute, baina aurrean txapela Euskal



Herrian gera dadin saiatuko gara”. Mendaroko bikote bat ere arituko da, baina hauek ez dira profesionalak. Maitek esan digunez, beraien nahia Mendaroko Frontenis ikastaroak antolatzea da, datozen edizioetan herriko jendeak parte har dezan. Maitek herritarrek animatu nahi ditu: “sei lagun apuntatu dira, eta hamar behar dira gutxienez, taldea osatzeko. Kirol polita da, eta oso ondo pasatuko dugu”. Maitek esan digunez, giro bikaina izango da Mendaroko frontoian. Izan ere, lehiakide izateaz gain, lagun oso onak baitira guztiak: “lehiakide izateak adiskidetasun polita sortu da, eta hori garrantzitsua da”.

Energiari buruzko hitzaldia eskaini zuen Gerartak Mendaroko udaletxean

“Energiarik garbiena, aurrezten dena” lemapean, hitzaldi benetan interesgarria eskaini zuen Gerartak iragan martxoaren 13an. Udaletxeko Otarre aretoan ez zen jende gehiegi bildu, baina bertara hurbildu ziren entzuleek, gauza berri asko ikasteko aukera izan zuten. Gerartak eguneroko bizitzan gastatzen dugun energiari eta gastatzeko dugun moduari begirada bat eman zion, eta honekin batera, gure energia gastuak erdiraino gutxitzeko hainbat aholku eman zituen. Ge-



arrantaren hitzetan, “inguratzen gaituen guztia da energia”. Hala ere, energia mota batzuk agortu egingo direla adierazi zuen, petroleoa, esate baterako. Hori dela eta, gure eguneroko bizitzan energia aurrezteko oso garrantzitsua dela adierazi zuen. Gerartak esan zuenez, argi-kuntzan, berokuntzan eta garraioan gastatzen dugu energia gehien, eta kontsumo hori gutxitzea erraza dela gaineratu zuen: “eguzkiaren argitasuna aprobetxatu behar dugu”.

Martxoaren 26an zabalduko da KZ gunea

Telefonoarekin arazo batzuk direla eta, Mendaroko KZ gunea irekitzeko eguna atzeratu egin da, eta martxoaren 26an irekiko dela adierazi digute. Eusko Jaurlaritzak eta EUEDEL zentro publikoaren sarea sortzen hasi dira, eta 5000 biztanletik gora ditzen herrietan “KZ gunea” zentroak jartzen ari dira. Mendaroko Udalak, “konekta zaitez herritar” programa jartzen du martxan, herritarrek teknologia berrien mundura hurbiltzeko asmoz. Printzipioz, jubilatutako, etxekoandre eta langabetuei zuzendutako programa izango da, hauek baitira ezagutza gutxi daukatenak. Hala ere, edozein herritarrek parte hartu ahal izango du.

Bihar, larunbata, Arantzazura irteera egingo da

Arantzazura irteera egingo da bihar, zapatua, martxoak 23. Aurtengo ibilaldia “Fedearen Testigu” lemapean egingo da. Ibilaldia Oñatin hasiko da. 8 kilometro egingo dituzte eta isiltasunean egingo da. Ekitaldia Arantzazuko elizan otoitz eginez amaituko da. Interesatuak apaizari eman diezaiokete izena.

Mendaroko

Abadetxean egotea lortu dute, baina ez luzerako. Lokal baten bila da

Otsailaren 22an inauguratu zuten ofizialki Mendaroko Gaztetxea. Udalaren baimenik ez daukaten arren, apaizarekin akordio batera iritsi dira, eta eskandalu handirik ateratzen ez duten artean, abadetxea izango da beren topagunea. Aste Santua pasatzen denean, abadetxea bota egingo dutela adierazi diete, bertan etxeak egiteko proiektua dago-eta. Gazte Asanbladako kide batzuekin hizketan izan gara, eta esan digutenez, "etxeak dira dirua ematen dutenak, eta Udalak bere interes propioen arabera jokatzeko du". Hala ere, Gaztetxea lortu artean borrokan jarraitzeko asmoa daukatela adierazi digute.



Mendaroko gazteek ez dute sekula gune propioirik eduki. Udalarekin hainbat bilera egin dituzte, baina Gazte Asanbladakoek esan digutenez, Udalak ez dauka borondaterik. Beren hitzetan, "urte eta erdian udalaxearekin lortu ez duguna, ordu erdian lortu dugu herriko apaizarekin. Borondatea besterik ez da, horixe da udalaxean aurkitu ez duguna". Gazte Asanbladak Abadetxean dauka bere topagunea, eta bertan kokatu dute behin behineko Gaztetxea.

Gazte Asanbladakoek argi eta garbi adierazi digute zein baldintza bete behar dituen Gaztetxe batek. Gaztetxea definizioz, gazteek antolatutako ekintzak burutzeko leku fisikoa da. Nortasun publikoa, independentea eta berezkoa izango du, etekinak lortzeko interesak alde batera utziz. "Guk antolatu eta gestionatutako Gaztetxea nahi dugu, autofinantziazioan oinarritutako Gaztetxea".

Udalarekin harremanetan

1998. urtean osatu zen Mendaroko Gazte Asanblada, eta duela pare bat urte hasi ziren Gaztetxea sortzeko lanetan. Orain arte bilerak egiteko lokal bat zeukaten, baina ez zuen Gaztetxe bezala funtzionatzen. Iazko urtarrilean, Udalarekin bilerak egin zituzten baina ez zen ezer lortu. Baldintza minimo batzuk betetzen dituen lokala eskatu diote Udalari, hau da, tamaina egokia, komunak, argia eta ura izan dezala. Esan digutenez, lokal bat eskaini zieten, baina "aurpegira barre egin ziguten. Oso txikia zen, eta han ezin zen

ezer egin". Abenduan bizkotxerixia bezala ezagutzen den lokala okupatu zuten baina Ertzainak aterarazi zituzten. Mendaro izugarri ari da handitzen, eta herritarren beharrak ere asko dira. 200 gazte baino gehiago dago Mendaron Gaztetxearen alde. Badirudi garai batean Gaztetxe antzeko bat izan zela Mendaron, eta gauzak ez zuten behar bezala funtzionatu. Hala ere, Gazte Asanbladakoek aukera bat eskatzen dute: "hilabete pare bat edo hiru eskatzen ditugu. Ikusi dezatela zer egiten dugun, eta gaizki badihoa itxi dezatela, baina aukera bat nahi dugu". Firma bilketa ere egin zuten Gaztetxearen alde, baina Udalak esan zuenez, ez di-

Udalak Gaztelekua irekitzea proposatu du. Gazteek, ordea, beraiek gestionatutako Gaztetxea nahi dute eta ez Udalak koordinatutako gunea

ra Mendaroko gazteen errepresentagarri. Gazte Asanbladakoek ustez, "Udala herriaren beharretara moldatu beharrean, herritarrak moldatu behar dugu Udalaren interesetara".

Gaztetxea

aten bila dabilta Mendaroko gazteak

Gaztetxea eta gazte-lekua

Udalak Gaztelekua irekitzeko proposamena luzatu die, eta gainera, bertan dirutza handia inbertitzeko asmoa daukela adierazi die. Gazte asanbladakoek ustez, bi kontzeptu desberdin dira, eta bereiztu beharra dago: “Gaztetxea guk gestionatu eta finantziatutako lekua da, geure erara antolatutakoa, gazte-lekua berriz, Udalak aukeratutako dinamizatzaile batek koordinatuko du, azken finean, Udalak kontrolatutako lokala izango da, eta hori ez da guk eskatzen duguna”. Gazte Asanbladakoek argi daukate ez dutela dirurik nahi, beraiek lokal bat besterik ez dute eskatzen, eta Udalak beti ezetza ematen die. “Azkenean sekulako frustrazioa sortzen zaigu, eta askotan aurrera jarraitzeko gogoia ere galdu egiten da, baina guk Gaztetxea lortu arte borrokan jarraitzeko asmoa daukagu”.



Gazte Asanbladakoek ekitaldi ugari antolatzen dituzte urtean zehar.

GAZTE ASANBLADAK BURUTUTAKO EKINTZAK

Asko dira Mendaroko Gazte Asanbladak antolatzen dituen ekintzak, eta Mendaro herri txikia dela kontuan izanik, erantzun ona izaten dute gehienetan. Beraiek esan digutenez, jendearen partaidetza ekintzaren araberakoa izaten da. Martxoaren 2an, garbiketa eguna antolatu zuten. Ez omen zen jende gehi- gi animatu, baina zabor mordoa atera zutela adierazi digute. “Ez dugu erreibindikazio gisa egin, baina Udala konturatu da-



dila, herriak garbiketa bat behar duela”. Honetaz gain, Gaztetxe- an patata tortila lehiaketa antolatu zuten, eta giro ezin hobean pasa zuten eguna. Mus eta tute lehiaketa, ping-pong lehiaketa... honetaz gain, urtero dagoeneko tradizio bilakatu diren beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: Gaztainerre eguna, bizkotxo, ogi, eta opil ikastaroa, gorputza kurtitzeko hilabetea, sagar- dotegira irteera, emakume eguna, Debabarreneko Gaztetxeen ar-

teko bertso txapelketa. Gazte Asanbladakoek esan digutenez, “Garbiketa egunean hiru lagun bakarrik elkartu ginen, baina sagardotegira autobusa beteta joan zen, eta hori asko da”. Sekula ez diote ekintza bati ezetza ematen jende gutxi apuntatu delako, beraien helburua ez da etekinak ateratzea, beraz, nahiz eta talde txikia izan, ekintza guztiak aurrera eramaten dira:

DATOZEN EKITALDIAK:

Martxoak 23. Zuhaitz eguna

Azken urteotako tradizioari jarraituz, Zuhaitz Eguna antolatu dute. Goizeko 10etan aterako dira Gaztetxetik, eta zuhaitzak landatuko dituzte.

Aste Santua. Asturiasera irteera

Gazte Asanbladak Asturiasera irteera antolatu du Aste Santurako. Martxoaren 27an abiatuko dira, eta ekitaldi desberdinak burutuko dituzte bertan. Besteak beste, zaldian ibili, eta mendi irteeraren bat egteko asmoa daukate.

Erretratu zaharra



H

ilabete honetako erretratu zaharra **Udaleko Artxibategiko arduradunek** laga digute. Prozesio batean ateratakoa da. Aste Santua gertu dagoenez, egokia iruditu zaigu zuei erakusteko. Hala ere, ezin izan dugu jakin zein urtetakoa den, ezta nor diren bertan agertzen diren herritarrak ere. Ikusteko modukoa da, ordea. Agian, zuetako norbaitek ezagutuko du bateron bat.

Zinemaldien eta sarien inguruko zikloa antolatu du Ongarri Zine Klubak

“Bestelako Zinea”-ren emanaldiak apirilak 2tik maiatzaren 9ra luzatuko dira

“Bestelako Zinearen” ziklo berri bat antolatu du Ongarri Zine Klubak. Zinearen inguruko “festival”-etan sariren bat irabazitako filmak osatzen dute; Venecian, Berlinen, Cannesen edo Montrealen aurkeztatu filmak dira eta sariren bat irabazi dutenak, gainera.

Apirilaren 2an emango zaio hasiera zikloari, “El voto es secreto” filmarekin. Pelikula honek zuzendari onenaren urrezko lehoa eskuratu zuen iaz Venezian. Europear estiloko amodiozko bi istorio ikusi ahal izango dira jarraian: La pianista eta Intimidad. La Pianistako aktoreak (Isabelle Huppert) eta aktoreak (Benoit



Babak Bayami zuzendariak saria jaso zuen Venecian “El voto es secreto” filmarekin

Magimel) interpretazio onenaren saria jaso zuten Cannesen. “Intimidad”-ek urrezko hartza eskuratu zuen iaz Berlingo zine jaialdian.

Herrialde desberdinetako filmak Coronación, film txiletarrak hartuko du lekukoa. Montrealen zuzendaritza onenaren saria irabazitakoa eta Huelvako Zine iberoamerikarrean pelikula onenarena ere eskuratutakoa da. Zikloaren barnean, herrialde desberdinetako lanak aukeratu dira. Horien artean badago esanguratsua den Taiwango film bat ere. Iaz, Cannesen zuzendari onenaren saria lortutako “Yi-Yi”

alegia, maiatzaren 7an eta 9an ikusi ahal izango da.

El voto es secreto

Apirilak 2-4

La Pianista

Apirilak 9-11

Intimidad

Apirilak 16-18

Coronación

Apirilak 23-25

Yi-Yi

Maiatzak 7-9

Parrokiako koruak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, Parrokian

Bestalde, Itxaropena Abesbatzak Eibarren abestuko du egun berean



Bihar zapatua, martxoak 23, emanaldia eskainiko dute Parrokiako korukoek San Bartolome parrokian. 19:00etako meza amaitu ostean, ekingo diote kantuan herriko abeslariak. Bihar ere izango da, beste abestien artean, “Hil da Jesus” Parrokiako koruaren ahotik entzuteko aukera. Honako hauek dira abestuko dituzten piezak: Regina Celi, Ave Verum, O Salutaris, Cristus factus, Popule meus, Aita Gurea eta Hil da Jesus

Itxaropena Abesbatza

Bestalde, Itxaropena Abesbatzak, Eibarko Sostoa abesbatzarekin batera, Aste Santuko kontzertua eskainiko du bihar Eibarko Karmengo Amaren elizan, arratsaldeko 8etan.

“Tecnifuelle Elgoibar” eskubaloi taldeak Euskadiko Junior Txapelketa irabazi du

Apirilaren erdialdean Espainiako Txapelketaren sektorean hartuko du parte



Askartza” Leioako taldeari 19 eta 18 irabazi ondoren, junior mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen “Tecnifuelle Elgoibar” eskubaloi taldeak pasa den martxoaren 13an. 16 eta 21 urte bitarteko jokalarientzako txapelketa honetan 3 taldek hartu dute parte; Tecnifuellek, Askartzak eta Vitoriak. Elkarren aurka joaneko eta itzulerako partiduak jokatu eta gero, elgoibartarrek 4 partidutatik 3 irabazi dituzte eta Euskadiko txapelketa izatea lortu dute. Orain, Espainiako Junior

Txapelketaren sektorea jokatu dute. Espainiako edozein tokitan jokatzeko tokatu ahal zaiela azaldu digu Ruiz entrenatzaileak, "Espainiako punta batean zein bestean toka dakiguke. Bidaia luzea bada 800.000 pezetako kostua izan dezake. Beraz, guk antolatzea eskatuko diogu federakuntzari. Sektore txapelketa irabaziko balute, Espainiako Txapelketaren azken fasea jokatzeko eskubidea lortuko lukete.

Ligan gaizki

Bestalde, liga txapelketa amaitzeko 3 jardunaldi besterik falta ez direnean, maila galtzeko arriskua dute Tecnifuellekoek, "atzetik hasita

laugarrenak goaz eta azken bi taldeek galduko dute maila. Baina, baliteke azken lau sailkatuak jaitea, goragoko mailetan dauden Euskal Taldeek egiten dutenaren arabera. Gauzak horrela, postu bat aurreratzea komeni zaigu. Gure aurretik dagoen taldea puntu bakar batera dago" azaldu digu entrenatzaileak. Pare bat aste barru partidu erabakiorra jokatu dute etxean, Olaizaga Kiroldegian, "Aloña-mendi" taldearen aurka, hain zuzen ere. Talde oñatiarra liderra da momentu honetan.

51 lagun izan dira Andorran Morkaiko Mendizale Elkartearekin

Eguraldi eskasa egin arren, eskiatzeko elur ona eduki zuten

San Jose Eguneko jaizubia aprobetxatuz, 51 lagun izan ziren Andorrako Soldeu El Tarter eski estazioan martxoaren 15etik 19ra bitartean. Lehen 3 egunak eskiatzen pasa zituzten eta aipatu digutenez, kalitate oneko elurra izan zuten, nahiz eta eguraldiak ez gehiegi lagundu. Gehienek eski alpinoa egin zuten, baina 10 laguneko talde batek fondoko eskia praktikatu zuen lehen bi egunetan eta hirugarrenean, mendi buelta bat egin zuten raketak jantzita. Azken egunean Andorra hiriburura jaitsi ziren. Batzuk erosketak egiteko



aprobetxatu zuten eta beste batzuk, Caldea bainuetxeko ur beroak nahiago izan zituzten 3 egunetan batutako nekeak kentzeko.

Obrak

Bestalde, Morkaikoren Errosario kaleko egoitzak obretan jarraitzen du. Obrek irauten duten bitartean, Kultur Etxeko sotoan kokatu dute behin behineko egoitza. Bisita egunak lehengo berdinak dira: astelehenak eta ostegunak 19:00etatik 20:30era. Faxe eta telefonoa ez dituzte erabilgarri

izango. Posta eta E-posta, berriz, erabili ditzakete.

Karmel-Xabier, lehen mailan, eta Karral-Orue, bigarren mailan, izan dira Sallobenteko Pilota Txapelketako bikote irabazleak

Karmel eta A. Loiola aukeratu dituzte pilotari onenak


Sallobente Elkartek Artazo pilotaria zenaren omenez antolatzen duen Pilota Txapelketaren finalak pasa den domekan, hilaren 17an, jokatu ziren Sallobenteko frontoian. Guztira 24 bikotek hartu dute parte urtarrilean hasi zen txapelketan, baina 8 bikoterik onenek bakarrik lortu zuten finalera ailegatzea. Meza entzun ostean hasi zen bigarren mailako finala. Bertan, X. Loiola eta A. Loiolak 22 eta 13 irabazi zieten Karral eta Orueri. Ander Loiola aukeratu zuten jokalaria onena. Lehen mailako finalean, berriz, Karmel eta Xabier bikoteak jantzi zuen irabazlezen txapela, Basueta eta Antxon, iazko txapeldunei, 22 eta 19



irabazi ostean. Jokalari onenaren saria karmel Leonentzat izan zen. Partiduen ostean, Sallobente Elkartean arkume jana egin zuten. Bildu ziren 38 lagunek 5 arkumeri kontu eman zietela aipatu digute.

Jose Gurrutxagak Espainiako Kros Txapelketa irabazi du 80 urtetik gorakoen kategorian

Mintxeta Atletismo Taldeko Jose Gurrutxaga korrikalariak beteranoen mailako Espainiako kros txapelketa irabazi du. Talavera de la Reinan (Toledo) jokatu zen txapelketa martxoaren 17an. Josek 80 urtetik gorakoen kategorian egin zuen korrika eta 48 minutu eta 25 segundu behar izan zituen 6.600 metrotako lasterketa amaitzeko. "Zirkuito oso gogorra eta aldapatsua zan, baina oso gustura bukatu naban karrera. Ikuslien animuak izugarri lagundu zien", aipatu digu Josek. Mintxeta Atletismo Taldearentzat Espainiako lehen txapelketa izan da eta Josek egin duen oso harro daudela azaldu digute, "eskerrak eman nahi dizkiogu Joseri gure kluba horren ondo defendatzeagatik eta azken garaipena ez izatea espero dugu. Datorren urtean bere tituloa defendatzea gustatuko litzaiguke".



KIROL EMAITZAK

Futbola

Irun 1902 **1** - Haundi **2** (Pref.)
Elgoibar "B" **1** - Zestoa **1** (1. erreg.)
Elgoibar **4** - Ikaiberri **1** (Jub.)
Elgoibar **0** - Urola **3** (Kad.)
Bergara **4** - Elgoibar **0** (Inf.)
Elgoibar **2** - Aurrera Vitoria **4** (Neskak)

Esku pilota

Debarroko Txapelketa

Olalde - Idiakez **6** (Olalde) - Goenaga/Iriondo **22**

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (3) **8** - Bergara (2) **18** (Inf.)

Elordi **5** - Lagunak (1) **18** (Inf.)

Idarraga Sariak

Jokalaria	Puntuak
1-Salaberria	98
2-Joseba Igartua	90
3-Loren	59
4-Navarrete	54
5-Leonardo	50
6-Elkoro	45
7-Ugalde	44
8-Txasio	39
9-Gurrutxaga	27
10-Guinea	23
11-Goikoetxea	13
12-Caro	10
13-Azpiroz	7
14-Bravo	6
15-Jabi	5
16-Jagoba	3
17-Aristondo	2
18-Zubiaurre	2
19-Mujika	2
20-Toni	2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, **23**

17:00 Haundi - Tolosa (Pref.)

Domekia, 24

12:00 Elgoibar - Hondarribia (Inf.)

ESKU PILOTA, Ikastolan

Martitzena, **26**

Debarroko Txapelketa

Finalerdia

19:00 Lagunak - Olalde

Farmazia

EGUNEZ

22 Zabaleta
23 Etxeberria
(Errosario kalea)

24 Etxeberria
(Errosario kalea)

25 Ibañez
26 Bidasolo
27 Etxeberria

(Santa Ana kalea)

28 Yudego

29 Yudego

30 Yudego

31 Ibañez

1 Ibañez

GAUEZ

Zabaleta
Etxeberria

Etxeberria

Ibañez

Bidasolo

Etxeberria

Yudego

Yudego

Ibañez

Ibañez

Ibañez

FARMAZIAK

IBANEZ, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

Okindegia

OKINDEGIA

24 domekia Fotero

28 osteguna Ibarrenea

29 ostirala Idarraga

31 igandea Doña Mercedes

1 astelehena Eizagirre

Partikularrak

♦ Ingelesko klase partikularrak ematen dira. ☎ 605 73 95 34.

♦ Ingelesko klaseak ematen dira Mendaron. ☎ 943 75 52 09 / 943 74 29 84. Lorea.

♦ DBHko ikasleentzat klase partikularrak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ 943 74 42 06.

Etxebizitzak

♦ Pisua salgai Mendaron. 104,40 m², gela guztiak kanpora ematen dute, 3 ganbara eta 2 garaje ditu. Estreinatzeko. ☎ 943 74 15 76/ 943 03 35 18.

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 650 05 81 34

♦ Mendaron pisua salgai, Azpilgoeta, 16an. ☎ 943 75 50 83.

♦ Apartamendua alokatzen da Torre viejan Aste Santurako. Igerileku eta guzti. ☎ 943 74 23 63. Rosa Maria.

♦ "Buhardilla" salgai Errosario kalean. Bikote edo pertsona batentzako proposa. Prezio onean. (18:00etatik aurrera). ☎ 653 71 75 81.

♦ Pisua erosiko nuke Sigman. ☎ 606 15 80 22.

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa da. ☎ 943 74 32 17. Susana.

Garajeak

♦ Garajea salgai Kalamua kalean. ☎ 943 74 34 09.

♦ Garajea alokatzen dut Madalako etxeetan. 19:00etatik aurrera deitu. ☎ 943 19 11 65.

♦ Garaje itxia salgai Olasoko Poligonoan. Martin. ☎ 630 63 79 78.

Salerosketak

♦ Scooter motoa salgai. Peugeot markakoa. 2000. urtekoa. 5.700 km. Kaskoa eta maletina oparitzen ditut. 900 euro. ☎ 649 33 49 22.

♦ Terreno zati bat behar dugu alokatzeko edo erosteko. ☎ 943 74 29 47/ 699 30 03 25.

♦ Bi ohe salgai. 1,90X1,90. Koltxoi berriak eta koltxak oparitzen ditut. 15 egun besterik ez dituen koltxoieran funda ere salgai. ☎ 626 02 71 93.

♦ Bikiak ibiltzeko kotxea salgai. Arrue markakoa. Prezio onean. ☎ 605 75 00 12.

♦ Fiat Punto turbodiesel. BI-CP. Richard. ☎ 639 17 29 25.

♦ Opel Ascona autoa salgai. SS-X. Prezio oso interesgarria. ☎ 686 22 44 38.

♦ Ezkontzeko soinekoa salgai. Merke. (20:00etatik aurrera). ☎ 943 74 33 88/ 943 68 33 70.

Bestelakoak

♦ Bularreko "brotxe" bat galdu nuen hileta baten ostean. Rosa. ☎ 943 74 07 33.

♦ Merkatu plazako postuak traspasatzen dira. Prezio onean. ☎ 943 74 10 07. (22:00etatik aurrera).

♦ San Roke kalean, martxoaren 12an, haizeak praka bakero zabal batzuk eraman zizkidan. ☎ 943 74 29 30.

♦ Martxoaren 4an, elizan poltsa bat azaldu zen. Barruan bi painolu, ispilu bat eta agenda daude. Galdu duena, meza orduetan ager dadila.

♦ Mobil bat galdu dut. Siemens markakoa. ☎ 943 74 22 08.

♦ Urre zurizko eraztun bat galdu dut, harri bitxi txiki batekin. Ion 11-03-01 dauka grabatuta. Aurkitu duenak Udaltzaingoa utzi dezala.

♦ Elgoibarko erdigunean pisoa konpartitzeko pertsona bat behar da. ☎ 943 74 82 72. (Bulegoko ordutegian).

Lana

ESKAERA

♦ 36 urteko emakumea eskaintzen da lokalak garbitzeko edo adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Carmen. ☎ 943 74 27 79 (goizean).

ESKAINITZA

♦ Sukaldariak behar dira udalekue-tan, uztailaren 2tik 14ra bitartean lan egiteko. Bidalit curriculumak Elgoibarko Izarrara. Ubitarte, 4.

♦ Neska edo mutila behar da banaketa lanetarako. B1 gidabaimenarekin. ☎ 629 27 10 53

♦ Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. ☎ 687 04 32 55. (16:00etatik aurrera)

♦ Kamareroa behar da, barran eta jangelan zerbitzeko. ☎ 943 74 04 90.

♦ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astelehenetik larunbaterra, goizez. ☎ 943 74 18 24.

♦ Ileapaintzailea behar da, esperientziarekin. Lan orduetan deitu. Kristina. ☎ 943 74 43 88.



♦ Zorionak **Irune Martinez**, hilaren 21ean 14 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki, Alazneren partez.



♦ Zorionak **Ainhoa Zapata** 14. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki anaiaren eta lkerren partez.



♦ Zorionak **Itxaso zure** 11. urtebetetzean. Etxekoan, lehengusuen, lagun... Danon partez.



♦ Zorionak **Unai Ortuosteri**, martxoaren 30ean 7 urte bete zituelako. Etxekoan partez.



♦ Zorionak **Danel Legorbururi**, hilaren 21ean 4 urte bete zituelako. Familiakoan partez.



♦ Zorionak **Haizea zure** 6. urtebetetzean! Muxu haundi- haundi bat etxeko danon partez.



♦ Zorionak **Ane Artola Arraitunandiarri** 6. urtebetetzean. Familiakoan partez. Egun on pasa.



♦ Zorionak **Iria**, hilaren 24an 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta Kattalinen partez.



♦ Zorionak **Joana Marcillari**, hilaren 23an 6 urte bete zituelako. Familiakoan eta bereziki, anaiaren Asierren partez.



♦ Zorionak **Alaitz Egañari**, martxoaren 20an 4 urte bete zituelako. Familiakoan partez.



Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean.
Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461 Orduategia:
Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00
larunbata: 10:00-14:00

JARDUERAK

Ostalaritza eta turismoa

Ostalaritza eta turismo arloetarako enplegu eta prestakuntzarako II. Azoka. Donostiako Udalak Kursoal jauregian antolatuta du apirilaren 18rako.

BEKAK

Ingelesa

La Caixa Fundazioak, graduatu ondoko ikasketak Estatu Batuetan, Kanadan edo Erresuma Batuan burutzeko beka eskaintzen ditu. Hautagaiek, lizentziatu titulua eta ingeles ezagutza bikainak egiaziatu beharko dituzte. **Epea: ekainak 28.**

Frantzia

La Caixa Fundazioak, 2002-2003 ikasturtean Frantziako unibertsitateetan goi-mailako irakaskuntza zentroetan graduatu ondoko ikasketak egiteko 20 beka eskaintzen ditu. **Epea: maiatzak 14.**

SARIAK ETA LEHIAKETAK

Maketa-lehiaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Departamenduak Gazte-maniak Programako 6. Maketa lehiaketa aurkeztu du. Gutxienez 3 abestiz osatutako maketak, biniloak edo CDak bidali beharko dituzte, taldearen historiak, argazki, helbide edo harremanetarako datuekin. Gipuzkoako musika-talde eta bakarlarientzat.

Epea: apirilak 30.

Narrazioa

Urrituko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalaren (UHUN) XIII. Narrazio Laburren Saria. Saria: 6.010 e; 901 e-ko bi akzesi. Gaia librea izango da. **Epea: apirilak 4.**

Zinea, bideoa

Sekaya Siroco Gazteen Elkarteak (Valentzia) VI. Siroco Sariak antolatuta ditu. Zinema, bideoa, animazioa, bideo klipa. Gaia, generoa eta hizkuntza autoreak aukeratu du. **Epea: apirilak 3**

LANA

Ofizial Elektrikaria


Errenteriako Udalean Ofizial Elektrikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Eskola graduatua, LH1eko titulua, B motako gida-baimena eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna eskatzen dira. **Epea: martxoak 27.**

Ikus-entzunezkoen teknikaria

Eresbil-Musikako Euskal Agiritegiak Ikus-entzunezkoen Teknikari plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatuta du. LHII (Ikus-entzunezkoak edo informatika) titulua eta euskara eta gaztelania jakitea eskatzen da. **Epea: martxoak 26.**


Informatikako langilea

Logroñoiko Udalean Informatikako langile bat kontratatzeko oposizioa. Lanpostua Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoari dagokio. LHIIko titulua, Goi-mailako Batxilergoko titulua, edo BBB es-



Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Karrikizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

agenda

22 BARIXAKUA

22:00 ZINE FORUM-A

"Chocolat"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



22:15 I. BEREZIARTU MUSIKA ESKOLAKO TALDE INSTRUMENTALAK

Musika Eskolako Auditorioan

22:15 KONTZERTUA

Taldea: Alboka Musika Folk Taldea

Herriko Antzokian



24 DOMEKIA

10:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

10:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

ZINEA



"THE HOLE"

Zuzendaria: Nick Hamm.

Antzezleak: Thora Birch, Embeth Davidtz, Desmond Harrington.

Liz (Thora Birch) era oso misteriosuan eta arrastorik laga gabe desagertu da beste 3 lagunekin batera. Laurak ziren goi mailako ikastetxe britainiar bateko ikasleak. Gorputza golpez beterik eta oroitzen traumatikoak dituela aurkituko dute Liz. Phillipa Horwood, poliziako psikologoa, zer gertatu zaion argitzen saiatuko da. Bunker hotz eta ilun batean pasa zuen denbora luzea bakarrik gogoratzen du Lizek. Guy Burt idazleak 93an idatzi zuen "After the Hole" liburuan oinarrituta dago film hau. 17 urte bakarrik zituen idatzi zuenean.

KARTELDEGIA

OSPAKIZUNAK

51ko kinto bazkaria

1951. urteko kintoek bazkaria egingo dute martxoaren 30ean, zapatuan, Ibaiondo jatetxean. Bazkaria eguerdiko 14:00etan hasiko da. Argibide gehiago nahi izanez gero edo kontsultak egiteko, deitu 943 74 26 27 edo 943 74 19 68 telefonoetara eta Sabino Alberdiz galdetu. Izena ematerakoan 6 euro orrdaindu beharko dira seinale gisa.

KONTZERTUAK

Udal Musika banda

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, martxoaren 24an, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean, honako pieza hauek joko dituzte: "Festmarsch" (J. Strauss), "Merry Wives of Windsor" (O. Nicolai), "Chopin's Dream" (F. Chopin), "Tom Jones in concert" (F. Bernaerts) eta "Los Burladores" (P. Sorozabal). Hasera 12:30ean.

Itxaropena abesbatza

Itxaropena abesbatza eta Sostoa abesbatzak Aste santuko kontzertua emango dute Eibarko Karmelita elizan. Kontzertua martxoaren 23an, zapatuan, izango da eta iluntzeko meza ondoren hasiko da

ELGOIBAR

Herriko Antzokian

"The Hole"

23, zapatua: 19:30-22:15

24, domekia: 19:30-22:15

25, astelehena: 22:15

"Los cachorros de Buddy"

Domekia: 16:30

"13 fantasmas"

28, eguena: 19:30-22:15

29, barixakua: 22:15

30, zapatua: 19:30-22:15

"Vanilla Sky"

31, domekia: 19:30-22:15

"Digimon"

31, domekia: 16:30

	Hilak 24 Erramo	Hilak 25 Astelehen	Hilak 26 Asteartea	Hilak 27 Asteazken	Hilak 28 Ostegun	Hilak 29 Ostiral	Hilak 30 Larunba	Hilak 31 Pazko
PARROKIA N	11:00 Prozesioa, bedeinka- zicia eta meza 12:30	14:30/20: 00 Penitentzia ospakizunak (Euskaraz)	14:30/20: 00 Penitentzi a ospaki- zunak (Gaztelaniaz)		10:00/12:0 0 Bnakako penitentzia 19:00 Azken afari- ko ospakizu- na	17:30 Jesusen heriotza- ren ospa- kizuna 20:00 Gurutz bidea	21:00 Bazko Bijilia	10:30 Meza nagusia eta pro- zesioa 12:30 Meza eta bataioak
SANTA KLARAN	9:30 Prozesioa, bedeinka- zicia eta				17:30 Azken afa- riko ospa- kizuna 21:30 Jaunaren	9:00 Irakurgaie n ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen	22:00 Basko Bijilia	9:00 Meza
MADALAN	8:30/12:0 0 Prozesioa, bedeinka-		20:00 Prozesioa, bedeinka- zicia (Euskeraz)	20:00 Prozesioa, bedeinka- zicia (Gaztelaniaz)	19:30 Azken afa- riko ospa- kizuna 22:00	10:00 Gurutz bidea 17:30 Jesusen	22:00 Basko Bijilia	8:30/12: 30 Mezak
SAN LORENTZO N		20:00 Penitentzia k 21:00			18:00 Azken afa- riko ospa- kizuna	19:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna		



**FERNANDO URIARTE
ZENAREN OMENEZ**

A

ste honetako erretiratu zaharra pasa den martxoaren 14an hil zen **Fernando Uriarte "Olinpic"-en omenez** argitaratu nahi izan dugu. **Fermin Arresek** laga digu. 1955. urtean atera zuten erretiratu Lerunen. Futbol partidu baten atsedenaldian atletismo erakustaldia egin zuten C.D. Elgoibarko Atletismo sekziokoek (Ego-Tokiren aurrekoa). Eshibizioaz gain, Ignacio Sagastari omenaldia egiteko aprobetxatu zuten, 80 metrotako lasterketan Espainiako Txapeldun atera berri baitzuen jubencil mailan. Argazkian ageri den Juan Ignacio Iguaran tolosarra "Barra vasca"-ko Espainiako txapelduna zen. Jabalina eta disko jaurtiketaren arteko kirola zen. Gaur egun desagertuta dago, nahiz eta eshibizio batzuk egiten diren noizean behin Donostian.


Fernando, esprintetan edo lasterketa laburretan zen espezialista. 36 urte inguru zituela 400 metrotako beterano mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen Madrilen. Kirolzalea eta oso ezaguna zen herrian. 1963. urteaz geroztik, Mugerza Krosa antolatzen lan handia egin zuen. Atletismoko entrenatzailea ere izan zen eta maila altuko atletak izan zituen bere agindutara; Migel Iraundegi plaentxiarra, 200 metrotan Espainiako txapelduna izandakoa eta 100 eta 200 metrotako Gipuzkoako errekorren jabea, Maria Antonia Artetxe eta Aranberri krosleriak...

Argazkian ezkerretik eskumara: **Fernando Uriarte "Olinpic"** (†), **Rodolfo Cuesta**, **Ignacio Sagasta**, **Juan Antonio Iguaran** eta **Iñaki Intxausti**.




ESKERTZA

2002ko martxoaren 14an, 73 urte zituela hil zen
FELIX ALONSO JUARISTIren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2002ko martxoaren 14an, 65 urte zituela hil zen
FERNANDO URIARTE
ARIZMENDIARRIETAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





€uro BERRIAREKIN **BASARTE** BERRITUA.

BASARTE
J A T E T X E A

Lanegunetan 11etatik arratsaldeko 4ak arte
Astebuetan 12etatik gabeko 12ak arte
Aste osoan karta eta degustazio menua

Lanegunetan baita eguneko menua ere.

Menu egokituak prestatzeko eta enkargatzeko
deitu **943 74 34 26** telefonora

*Alejandraren
sukaldaritza berria*

Basarte auzoa, 4 - Tel./Faxa: 943 743 426



Arauri

**Solarium-a
eta
Estetika kabina
berriak ezagutu
itzazu**

TEATRO IMPAR


"Casa con dos puertas"

Calderon de la Barca ren obra

Herriko Antzokian

eguna: APIRILAK 12

ordua: 22:15



"Casa con dos puertas" komedia barrokoa da. Antzezlan garrantzitsuenetakoa da Calderon de la Barca ren komedien artean. Joku dramatikoak, berezkoak diren obra honetan, egitura dramatikoaren perfekzio puntura iristen da. Horrela "vodevil de capa y espada" kontsidera genezake

GORAKADA ANTZERKI TALDEA

"Ahatetxo itsusia"

Herriko Antzokian

eguna: APIRILAK 14

ordua: 16:30

Hans Christian Andersen-en ipuina GORAKADA taldeak moldatua dago. Ipuineko pertsonaia nekatuta dago baserriko animaliek egiten dizkioten burlak direla eta. Handik alde egin eta bere antza duten animalien bila joango da. Bidean beste pertsonaia batzuekin egingo du topo eta beraiekin...



Foru Aldundia



Kultura sála



SAREA